

## AHOZKO KOMUNIKAZIOA IKASGELAN

Mendebalde Kultura Alkarteko kideok -Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera antolaturik-, ikastaroa eman dugu unibertsitateko irakasleentzat. Gaia, AHOZKO KOMUNIKAZIOA IKASGELAN. Hau artikulu idatzi hau han ahoz azalduko da.

### **1.- ORATORIA ERAGINKORRA, EZ ORATORIA HANDIA.**

Arbelaren eta ikasleen bitartean urteak igaro ditugunok, arreta handiz erreparatzen diogu ahozko jardunari, zeren gorputzarekin batera hitza izan baitugu baliabide nagusi, idatzia ezinbesteko kodigo gertatu zaigun sasietan ere. Dena dela, norbere presentziaz eta ahotsez eskola-ordu bikaina eskain litekeen arren, argiro onartu behar dugu euskarri informatikoak -eta laguntza itzela direla gure gizarte estimulu bisualez beterikoan.

XXI. mendeko gizartean ere, esku-telefonoko mezuak molde finkoko letraz igortzen ditugun arren, ezin ahantzi dugu berbak hegodunak direla, haize beti aldakorrek edonora lerratzen direnak, ahoko mihiak eduki ere ez dauka hezurrik-eta.

Bestalde, ahozkoaren eta idatziaren arteko balantza historikoan, telebistek ahotsaren nagusigoa erakusten diguten une berean, irakurketa ozena ere nagusi agertzen zaigu bai albiste emankizunetan, baita diskurtso, berbaldi nahiz elizako ser-

moietan. Kontatu zidan Txomin Solabarrietak –matematikan ere 10ekoa denak- zoriondu egin zuela Mungiako abadea, ezen ohiko bilakatu den irakurketa baino sermoia egin zuela-ko.

Ohartzen gara, gainera, irakurketa bera entzun egingo dutela, ez irakurri; eta entzun egiten dugunean, informazio handi bat hitzetatik euretatik baino nola esaten direnetik ateratzen dugu. Hainbestearino non, idatziko testu ederra alperrik gallezakeen irakurle monotonoak.

### **1.1.- AHOZKORAKO BALIABIDEAK**

Bizi garen Europa aurreratuan –informatikari dagokionean batik bat- konferentzietarako areto askotan dira finko ezarririk ordenagailua, kanoia eta gainerako trebejeriak. Hala eta guzti, jendaurrean arrakasta eduki gura duen hizlariak, ezinbesteko du berbaldi-lekura aurretik hurreratzea, ezen, baliteke sakelari eramaneko ziria –Pen Drivea- konputagailuak ez ezagutzea eta hasierako unerik adierazgarrienean, hainbeste orduko prestaketa hondatzea. Jesus Mari Txurrukak -Leioako Campusean barraskiloen eta bareen artzain denak- txintxo bezain fin garraiatu zuen arbela –hartan ere- metroan Bilboko Batzar Nagusietako aretoraino. Zer da, baina, kontua? Hainbeste neke kostatako arbel hori Mendebaldeko Jardunaldietako hizlari bakan batek ere ez zuela erabili.

Hala ere, unean uneko haserreak ahaztu egiten direla pentsaturik, hobe da tresneria bikoiztea, osteko ezak dakarren kezka baino.

### **1.2.- URDURITASUNA**

Idatzirik dago Zizeron bera –agian historiako oratorerik onena- dardara gainean abiatzen zela jendaurrera.

Geu ere, artega jartzen gara, zuhur, taldeko erosotasunetik bakan izatera aldatzean, begirale izatetik begiratu bihurtzean.

Baliteke, Xabier Amurizaren iritziz, urduritasuna ondo etortzea, baldin saioa hasi arteko urduritasuna bada.

Jakina da urteen porazoz, prestatzearen laguntzari esker ahozko jarduna neurri handian kontrolatzen dena. Guztiarekin ere, irakasleok alperreko hamaikatxo keinu, hanken mugimendu eta tik egiten dugu oharkabean.

Urduritasunari aurre egiteko antidotoa dela aipatu dugu, etxean edo bakarrik entrenatzea, baina Simon Callow-k erantzuten du, *Publikorik barik entrenatzea, olatu barik surf egitea*<sup>1</sup> dela, alegia “bai baina” suposatzen duela saiatzeak.

Ikasleen aurrean, bestalde, erne jartzen garela ere baieztatu dugu, zeren kontzentrazioa eskatzen baitu hizlari, aktore -hizlaria aktore baita, beste izen batekin bada ere- lanak eta askok uste baino handiagoa gainera. Lagungarri zait niri neuri papezko euskarria eskuetan dudala ikasgelaratzea, txosteneko garrantzitsuena koloretzaturik dudala, azpimarraturik, ideia nagusiak argi bezain garbi azaldurik. Dale Carnegie oratoriako guruak esana da, *ordu erdian dozena erdi ideia nagusi baino gehiago nekez irakats daitekeela*<sup>2</sup>. Alde horretatik, astirik ez bada, arin eta azkar mintzatzea baino, labur aritzea da konponbidea.

Kontatu ohi zuen Maria Arrieta Mungiakoak, behinolako abade bati pulpituan tente jarria zelarik, ahaztu egin zitzaiola berbaldia. Zer egingo? Orain zutunik, orain makurturik jartzen hasi zela, *banakusu, enakusu* esanik, ea tarte horretan memoria freskatzen zitzaion.

Eskola ordua hiru solairutako eraikuntzan bada ere, nik harmailetatik igotzen dut, beroketa ariketa eginez. Ohikoa da aktoreen artean hiru minutuko arnasketak-eta egitea: behatz

<sup>1</sup> GOTTESMAN, D; BUZZ, M. Op, cit., 220.

<sup>2</sup> GOTTESMAN, D; BUZZ M., Técnicas para hablar en público, 55.

puntetan zutunik, behean luze etzanda edo beste era baten ezen, gorputz-ariketak sistema osoa aireztatzen baitigu.

Azken baten, ordea, prestatu egin ohi dudan arren berbaldua, fortunaren esku ezer uzten ez badut ere, Will Rogers-en esaldiaren jakitun nago, hots: *“Mundu guztia da ezjakina, baina gai desberdinetan”*<sup>3</sup>.

### **1.3.- IRAKASLEAREN JANZKERA, BAGIRADA, ISILUNEAK.**

Hizlariaren janzkera, arropak..., aintzat hartzekoak dira. *“Oso zakar zatoz Juan Luis!”* jaurti zidan 12 urteko Julen Arriolabengoa ikasleak 25 urteko irakasle berria nintzenean –orduan Frankopeko mutil euskaldunok bizarra eta mendiko botak aldean direla sartu ohi ginen klaseetara-. Denean dela, berbaldiko gaiaz baino hobeto gogoratzen badira zure janzkeraz, behar bada okerreko arropak erabili dituzu.

Bestalde, ikasleei begira, nori edo hari begietara so egiten diozunean, elkarrizketa laburra daukazu berarekin. Alde horretatik, irakasleak eta ikasleak elkar ez ikustea deserosoa da. Akordetan naiz, orduko 1973ko Alfabetatze Kanpainetan, Imanol Berriatua Bermeora eramanez *b*-a dela-eta sorturiko itzelezko nahastea baretze aldera, Aita Luis Villasante ekarri genuela Arantzazutik. Edo entzuleak haserre barruntatzen zituelako edo frantziskotarren abituak hartara bultzatzen zuelako, behin ere ez zion aurpegira begiratu, ez andrazkori, ez gizonezkori; orain lurrera, orain sabaira mugitu zen haren buru hiletsua, olatu handiek lerabilketen txalupen balantzan.

Hari beretik, berbaldi baten ura edakeran edo klasean arbelaz ezabatzean agertzen den isilunea ez da zertan bete ezerekin, alegia, alperreko zarata eta esaldi hutsalez. Isiluneak nasaitu egiten du giroa eta astia ematen hurrengo ideia pentsatzeko. Beti ere, Aristotelesi jarraituta dioenean, *“Pentsatu egizu pertso-*

<sup>3</sup> GOTTESMAN, D; BUZZ, M. Op, cit., 188.

*na jakintsuaren eran, baina mintzatu pertsona normala legez*<sup>4</sup>.

Finean, honelako oharren aurrean –janzkeraz, begiradaz, isilunez- iritzi okerra atera daiteke –hainbeste direlako- nahiz -eta ez den zertan ezen, hizlari perfekturik ez baitago; era diferenteetako hizlariak daude, publiko desberdinentzat direnak gustuko. Beraz, guk gura izan behar duguna da, hizlaria den moduko agertzea, era naturalean, norbera izanik. Zentzu horretan, gorputza, keinuak, oinak kontrolatzea mesedegarri da, gerta ez dakigun Deustuko unibertsitateko irakasle haren taimainako kolpe latza hartzea, klariona eskuan tarimatik behera atzez jausi zenean.

#### **1.4.- GARRANTZITSUENA MEZUA GOGOAN IZATEA.**

Etsigarria dela adierazi dugu, frustragarria ere bai, behar bada, amai bako zerrenda ematea irakasleari, adieraziz zer egin behar den hizlari ona izateko. Horrek segurtasunik eza dakarkio. Horregatik, garrantzitsuagoa da mezua presente edukitzea, azaldu beharreko gaia txukun prestaturik izatea, bete-beharreko arauak zerrendatzea baino. Ez dugu esan gura, kasurako, samatik gorakoa kontrolatuz, eskuak erdi galdurik jokatzea ondo dagoenik, ezen gorputzak ere seinaleak igortzen baititu.

#### **1.5.- INTERAKTIBOTASUNA**

Interaktibotasuna errazteko –neure praktikari jaramon egirik-, ikasleengandik hur jartzea dut gogoko ezen, hurbiltasun horretatik inplikazioa hazi egiten baita. Sartzen nintzenean ikasgelara eta abiatu esanik: *Gaur Etxepare aztertuko dugu eta kantura jo, Munduyan den gizon orok // behar luke pensatu. Iangoikoak nola duyen // batbedera formatu, bere irudi propioa // gure arima kreatu; ...* ikasleetarik askok barreari em-

<sup>4</sup> GOTTESMAN, d; BUZZ, M. Op, cit., 167.

ten zion; ordea, azaltzen nienean: *jakizue nire ondorik zeuek abestu behar duzuela*, irriak eta barreak desagertu egiten ziren automatikoki, euren burua tarima gainean kokatzen zuten-eta.

Alde horretatik, ikasleak apunteak hartzearen aldeko gara, telebistako ohiturei jarraiturik ikasle espektadoreak hez ez dizagun.

Interaktibotasunaren barruan sartzen dugu gaiaren pertsonalizazioa; anekdota kasurako, ezen ezin konta daiteke anekdotarik gaia pertsonalizatu barik. Irakasgaiak berak ere horrelaxe irabaziko du izen ona, ikasleak ohartzen direnean gai horrek zuretzat –irakaslearentzat- zer balio daukan; inplikatu egin zarenean, pertsonalizatu duzunean. Komunikatzaile onarentzat garrantzi handiko da jarrera; zure poztasuna, zure entusiasmoo eskertu egiten du entzuleak.

Askotan –nik neurez dakit Eusebio Martija irakasleari entzunik gogotik ez baitzaizkit joan- gaiak berak ihes egin arren, pasadizo jakin batekin oroitu egiten gara. Fernando Alkorta psikologiako profesoreak, ostera, hatz erakusle motxoak zeukan, ez dakit zeren ondorioz zatia galdurik. Eta joera zeukan atzamar erdikin hori sudurrera hurreratzekoa. Ikasleon zurrumuruak hura sudurrera gerturatzean. Bazirudien sudur zulotik arimako zolaraino sartzen zuela.

Finean eta buruan, autokonfidantza handia behar dugu izan irakasle zein hizlariok, entzule, parte hartzaileen aitzinean, jakinik, andre-gizonok pianoaren 88 tekla dauzkagula, baina praktikan gure melodiak erdiko oktbara murrizten ditugula; beraz, dakiguna baino askoz gehiago eta gorago jotzeko gaitasuna duguna.

## **2.- MINTZAMENA**

Gramatikarietik, sarritan, hizkuntza idatzia hartu dute eredu-tzat hizkuntza deskribatzeko. Ondorioz, arazoak izaten ditugu

ahozkoa irakasterakoan, hots, lau trebetasunak lantzerakoan: mintzamina, entzumena, irakurmena eta idazmena.

## **2.1.- AHOZKOAREN ETA IDATZIAREN ARTEKO ALDEAK:**

Hitz egitea ez da idatziz mintzatzea. Arraro egiten da ahozko hizketan hizkuntza idatziaren estiloa entzutea. Hiztegi formalagoa eta landuagoa izaten da hizkuntza idatzian, sintaxia ere konplexuagoa. Horregatik gertatzen zaigu hain zail ozenki irakurtzea, esaldiak luzeegiak, arraroak direlako ozenki irakurtzeko.

## **2.2.-AHOZKOA ETA IDATZIA PROZESATZEKO BALDINTZAK.**

**Ahozkoan denbora** hartu behar da aintzat, denborak dena baldintzatzen du-eta. Pentsatzen eta aukeratzen diren heinean esaten dira hitzak, denboraren presiopean, eta gainera, memoriaren mugak ere kontuan hartuz.

Idatziarekin erkaturik, gainera, abantailak ere badira, entzulea aurrean daukagulako, ulertu ez dena itaun daitekeelako.

**Hiztunak denboraren presioari** aurre egiteko, baliabide jakinak ditu eskura:

### **2.2.1.- Errazpideak:**

Ahozko produkzioa errazteko baliabideok lau taldetan sailkatzen dira.

Egitura errazteko baliabideak: Hiztunak esaldi laburrak erabiltzen ditu, beti ere, *eta*, *edo*, *baina* moduko loturaz josita, edo esaldiak ezelako loturarik barik bata bestearen atzean esanda.

Bestalde, menpeko perpausak idatzian baino urriago erabiltzen dira.

Hori horrela izanik, nahitaezkotzat jotzen da irakasleek baliabideok aparteko kurtsoan jorratzea, izan ere, gure arteko profesional asko erdaratik etorria baita.

### **Elipsi baliabideak:**

Ezagun diren zati batzuk esan barik uzten dira, kasurako: *Badator!* Solaskideek ederto baten ulertzen dute, ageriko formetan azaldu ezagatik nor datorren, noiz eta nondik.

### **Esaldi eginak erabiltzeko baliabideak:**

Esaldi eginak eta ia beti berdin esaten diren perpausak: *Ez dut tutik ere ulertu!; Ondo esan beharko; Zorionak eta urte askotarako.*

Halakoetan hiztunak ez ditu aukeratu behar berbak banan-banan.

### **Astia hartzeko baliabideak:**

Hauei esker, hiztunak pentsatzeko asti gehiago izaten du: *etenak, hitzak errepikatzea, betegarriak: mm, zera, ba; esanekoa berriro esatea.*

## **2.2.2.- Konpentsazio baliabideak:**

Denboraren presiopean, hiztunak ez du askotan komunitatu gura duena zehatz azaltzen, baina horretarako badauka esandakoa zuzentzeko edo biribiltzeko aukera, baliabide batzuk erabiliz: *autozuzenketa, errepika, parafrasia* eta abar.

Beraz, jatorrizko hiztunek erabiltzen badituzte errazteko bideak eta konpentsazio-baliabideak, irakatsi ere egin beharko dira, eta era berezian, gabiltzan moduan ibilirik profesioz irakasle direnei hizkera landu, doitu erakusten.

## **2.2.3.- Elkarreraginezko trebetasunak:**

Hiztunak komunikatzaile ona ere izan behar du, eta komunikazio horretan eragin handia daukate: *rutinek eta negoziazio-trebetasunek.*



Hiztunak rutina batzuen arabera antolatzen du mezua: agur esatean, doluminak ematean, zoriontzeko...: *egun on! gero ar-te! zorionak!*

### **2.2.3.1.- Rutinak**

Rutinak informazioa emateko bide konbentzionalak dira:

#### **Informazio-rutinak:**

Askotan errepikatzen diren informazio egiturak dira informazio rutinak: *istorioak, instrukzioak, lekuen eta pertsonen deskripzioak.*

#### **Elkarreraginezko rutinak:**

Egoera jakin batzuetan txandatu egiten dira hiztunak. Txanda horien egiturei deitzen zaie elkarreraginezko rutinak. Esaterako, telefonoan, telebistako elkarrizketetan, bazkalosteko barriketetan... Hor ez da pentsatu beharrik, nahiko du hiztunak ohiturazko rutinei jarraitzea: *bai, esan!*

### **2.2.4- Negoziazio-trebetasunak:**

Ulertu dela ziurtatzeko laguntzen digute negoziazio-trebetasunek.

#### **Esanahiaren negoziazioa:**

Ideiak argi eta garbi komunikatzeko trebetasunari deritza esanahiaren negoziazioa. Berau da ahozko diskurtsoaren eta idatzizkoaren alderik handieneko jokabidea. Irakurleak, ordea, ezin aldatu du idazleak eskribiturikoa, ez eta idazleak ere.

*Ahozko diskurtsoan, berriz, hiztunak gebienetan aurrez aurre izan obi du entzulea eta honek ulertzen duen edo ez, galderaz edo keinuz azaltzen dio. Horrela, hiztunak minuturo alda dezake kontatzeko modua, esandakoa entzuleari hobeto*

*egokituz. Esanabiaren negoziazio bat ematen da solaskideen artean, itaunduz-eta*<sup>5</sup>.

### **Elkarreraginaren antolaketa:**

Trebetasun honi esker, hitzunak eta entzuleak gaia eta txanda-aldaketa kontrolatzen dute.

## **2.2.6.- Komunikazio estrategiak:**

Orain arte esaten gabiltzanak jatorrizko hitzunen mintzamenaren funtzionamenduan oinarritzen dira. Guretzat, baina, horiek ikasteaz gainera, oso jakingarria da hizkuntza ikasi duten ikasleek eurek dituzten komunikazio-estrategiak ezagutzea, horien bidez gainditzen baitituzte zailtasunak:

### **2.2.6.1. -Erredukzio estrategiak:**

Hitzunak, aldatu egiten du bere mezua, arazorik ez izateko; edo isildu egiten da ideia bat azaltzeko hiztegiarik ez daukanean. Azken baten, mezua murriztuta edo oker ematen du. Hori da, lorpen-estrategiak falta dituelako.

### **2.2.6.2.- Lorpen estrategiak:**

Hala deritzegu ordezko zerbaiten bila edo asmatzen dabilenean mezua ulergarri egiteko, esan beharrekoa beste era batean moldatzen duenean. Horietan sartzen ditugu:

#### **Asmatzeko estrategiak:**

Jokabide horretan, *gidatzea* ez badu gogoratzen, *konduzitza* erabiliko du, ezen badaki entzuleak gaztelera ere ezagutzen duela.

---

<sup>5</sup> HABE: Euskara irakaslearen liburua, 250.

**Parafraseatzeko estrategiak:**

Hau hizkera akademiko edo zientifikoaren kontrabidean egon liteke: *Ukuilu* ezin burutara ekarri eta *behiek lo egiten duten lekua* esatea, adibidez.

**Kooperazio estrategiak:**

Hala deritza laguntza eskatzeari hiztunak solaskideari, berba bat erdaraz esanik euskaraz eman diezaion

**2.3.- EZAGUTZA ETA TREBETASUNA:**

Ez da inor ukatzen duenik, hizkuntza jakin baten berba egin ahal izateko, beharrezkoa dela gramatika eta hiztegia ezagutzea, ez eta hori nahikoa denik ere.

Gidatzen ikasteko ez da nahiko trafikoko arauak eta kotxe-ko atalen funtzionamendua buruz jakitea, alegia, ezagutza; trebetasuna behar da, hots, autoa benetan gidatzea.

Sasoi baten gaitasun linguistikoa zen hizkuntzaren irakaskuntzan helburua; gaur, ostera, komunikazio-gaitasuna da, ezen perpaus gramatikalak egiteaz gain, hiztunak jakin behar baitu noiz, zertarako eta norekin hitz egin.

Komunikazio gaitasun hori honako gaitasunez osoturik dago:

*Linguistikoa*: egitura gramatikalak ezagutzea.

*Soziolinguistikoa*: gizarte arauen ezagutza.

*Estrategikoa*: komunikazioa lortzeko eta errazteko ezagutza.

*Kontestuala*: berbaldiaren arauen ezagutza...

Irakasle lanean –edozein irakasgaitan dihardugunean- gaia azaltzen dugunean, *jariotasunari* begiratzen diogu, hots, edukari, *zuzentasunari* edo formari baino gehiago. Eta *jariotasunak* barruan ditu: abiadura, koherentzia, sormena eta kontestualekiko sentsibilitatea.

Zuzentasuna, berriz, hizkuntzaren zuzentasunari eta zehaztasun gramatikalari dagokie; edukia baino forma azpimarratzen da, izan ere beharrezkoa da-eta. Bestela, zuzen mintzatu ezik, euskara ulergaitzean eginez gero, mezua galdu egin liteke. Jar dezagun adibiderako gertaera historiko bat erromatarren artekoa: *Bruto Zesar bil zuen*. Azterketa zuzentzen duenak, txarizat jo behar du baieztapen hori, literaltasunera joes gero ez baitakigu nork nor hil zuen.

Zoritxarrez –gazteleran edo ingelesean ez horrenbeste- euskaraz irakasten diren gaitetan, *Bruto Zesar bil zuen* bezalako baieztapenak ontzat hartzen dira, notarako esan gura duena edo gurako lukeena interpretatuz. Hortik datozen ondorioak kaltegarriak dira oso.

Honetan, Krashen-ek *learning* –ikaskuntza- eta *acquisition* –lorpena- bereiztu ditu. *Learning*, arau gramatikalen ezagutza kontzientea litzateke; *acquisition*, aldiz, era naturalean eta egoera komunikatiboetan ematen dena.

Helburu metodologikoetan, *feedback komunikatiboa* ere aipatu behar dugu. Feedback komunikatiboa esanahian ardatzen da eta ez forman. Beraz, irakaslea gehiegizko zuzenketetan ez da ariko; bestela ikaslea esanahietatik formetara aldatuko da. Dena den, Ikasleak ikasiko badu, bide onetik ala txarretik doan jakin egin behar du.

## 2.4.- PERPAUSAREN GRAMATIKA BAINO GAITASUN TESTUALA

Irakasle askoren iritzian, egia da aspaldiko adagio latinoara *Rem tene, verba sequantur*, alegia, argumentua edukiez gero, hitzek jarraitu egingo diotela argumentu horri. Eta hala praktikatzen dute, prestatzen dute irakasgaia eta jendaurrean berba egiteko gertu dira, besterik landu gabe.

Baina, hizkuntzaren funtzioa lehen mailakoa da igarotzean inpresioetatik bozetoetara eta gero hauetatik kontzeptu ondo elaboratuetara –igarotze hau kontzeptualizazioa deitzen da-.

Esaldi ondo eraikiak lagundu egiten du kontzeptua sorrarazten edo garatzen. Efektu berbera lortzen dute perpausa ondo ka-teatuek. Idazteko edo klasea emateko nahitaezko lehen pre-misa kontzeptuak edukitzea da. Hori hola izanik ere, baina azal-penerako trebetasuna, ordenatzearena, bata bestearen atzean jartzea eta kontzeptuak elkarrekin lotzea, estudio bidez eta ariketen bitartez lortzen da.

Beharrezko eta mesederako dela uste dut, ahozko komuni-kazioaren gainean berba egiten dugunean, linguistikako ideia bat edo beste aipatzea.

Gure aktibitate linguistikoko oinarrizko unitatea testua da –testu pragmatikoa, ez literarioa-, ez perpausa. Horrek aldake-ta handia dakar irakaslearen mintzamenerako. Jakina, testua idatzia nahiz ahozkoa izan liteke. Elkarrizketa bat, ikasgaia, konferentzia, telefono deia, hitz bakana, testu izan litezke, ba-tasuna eta osotasuna badaukate.

Testua mezua da, gai baten inguruan garatua eta batasuna eta osotasuna dituen. Hau gertatzen da, bestalde, testua sortu duen igorlearen eta hartzailearen artean.

Testua -latineko *textu*setik- zati desberdinen osotasuna da, eu-ren artean sareko harremana duten zatiena, prentsako iritzia artiku-lu baten izenburua, gaiaren kontaketa, artikulugilearen iritzia...

Guk ematen dugun klasean –edo solasaldi baten- hari jaki-na dauka diskurtsoak, eta berbaz jardunik, hari hori galtzen dugunean, bai klasean nahiz solasaldian, sortzen ari ginen tes-tuaren orde, esaldi inkoherenteak esaten jarraitzen dugu. Tes-tuak berak batasuna eskatzen du.

Gure ikasgelako ahozko trebetasuna arakatu eta hobetzeko, gaitasun testualari begiratu behar diogu; perpausaren gramati-kari baino gramatika testualari. Azterketa probetxuzkoa egite-ko, perpausa baino goragora jo behar dugu, ulertu ahal izate-ko, antolaketa hierarkikoa, testuaren barruko loturak.

*Gaitasun gramatikalaz gainera, beraz, gaitasun testuala bartuko dugu aintzat. Hori, testua berregiteko gaitasuna da, parafraseatzen jakitekoa, laburtzekoa, izenburua jartzekoa, erabakitzekoa testua osorik dagoen ala ezer falta duen, baita klasifikatzeko gaitasuna ere*<sup>6</sup>.

Ikus dezagun diogun hau –adibiderako- testua berreginez:

Koherentzia, kasurako, erreza da, bata bestearen segituko perpausetan hitz berberaren errepikapenak emana denean:

1.- Jonek liburu bat hartu du prestamoan Leioako bibliotekatik. Historiako liburu da, berak etxean sintesia egiteko. Miren **haren** adiskideak ere badauka liburu hori, baina azpimarraturik-eta daukalako ez dio laga.

Dakusagunez, izenordeak garrantzi handikoak dira egiturari eusteko.

Hara, ordea, beste pasarte hau:

2.- Alabaren eskolako liburuak erosi ditut. Telefonoko faktura goizean heldu da. Ordenagailua eroan behar dut konpon-tzera. Semeak betaurrekoak aldendu ditu. Gure etxeko gastuek ez daukate bukaerarik.

Testu honetan, berriz, *gure etxeko gastuek* sintagmak ematen dio batasuna testuari. *Gastuak* hitzak, orokorrak, batzen ditu bere menpean gainerako izen partikular guztiak.

Hala joka daiteke hiperonimoekin zein hiponimoekin, hierarkian berba orokorrangoak goian jarriarik eta konkretuenak azpian.

### **3.- TESTUAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

#### **3.1.- PRINTZIBIO KONSTITUITZAILEAK**

Zelan lortzen du testuak era argi eta garbian mezua komu-nikatzea? Esaten da, horretarako testuak zazpi printzipio kons-tituitzaile dituela:

<sup>6</sup> DARDANO, M; TRIFONE, P: Grammatica italiana, 532

Koherentzia, kohesioa, intenzionalitatea, onargarritasuna, informatibitatea, situazionalitatea, eta intertestualitatea.

Jar dezagun arreta berezia oinarrizko zazpi printzipioetarik hirutan:

### **3.1.1.- Kohesioa:**

Kohesioak lotura gramatikalak begiraten ditu eta moduak testuko osagaiak dituztenak euren artean erlazionatzeko.

Testuko perpausen artekoa kohesioa –ordezkoek- izenordeek eta perifrasiak bermatzen dute, testuaren iraunkortasun tematikoa seinalatuz, baita konektoreek ere; juntagailuek: *-eta, baina, ze, -nean, zeren..-; baita adberbioek ere: -orduan,...; eta espresioek -begira, aditu, esango dizut...-.*

### **3.1.2.- Koherentzia:**

Koherentziak begiraten dio testuan ageri diren edukien arteko loturari. Ea kausalitateko lotura den, helburuzkoa, kontsekutiboa...Koherentziak kontinuitate semantikoa ematen du, bestela absurdua litzateke testua.

### **3.1.3. Intertestualitatea.**

Zitak autoreenak, esaera eginak...

Koherentzia eta kohesioa bazter daitezke hizkera arruntean –solaskidea aurrean delako, intonazioagatik, keinuengatik...-, baina zorrotz zaindu behar dira, esaterako, testu zientifikoe-tan, hots, irakaskuntzakoetan-eta.

## **4.- TIPOLOGIA TESTUALA:**

Testu narratiboa, deskriptiboa, argumentatiboa, informatiboa, eta arauemailea –erregulatzailerak- sartzen ditugu hemen.

Berez, testu informatiboaren oinarritzko karakteristikak argitasuna, antolaketa eta zati guztien arteko koherentzia dira.

Testu informatiboan batera antolatuz topatu ohi ditugu, atal narratiboak, deskriptiboak nahiz argumentuzkoak. Historiako eskola orduan, esate baterako, kriterio kronologikoa litzateke nagusi; gertaeren gaineko iruzkinean, ordea, kriterio argumentatibo-logikoa nagusituko da; fisikakoan, azalpen kausal-argumentuzkoa. Hor ere, dena den, narrazioa agertuko da ikerketaren berri ematean edo deskribapena egitean edo objektua azaltzean.

Ondorioz, irakasle bakoitzak bere irakasgaiari testu tipoa bat besteak baino sarriago erabiliko du.

## **5.- EHUko IRAKASLEEN HIZKERA ETA IRAKURKETA: ONDORIOAK**

Irakasle asko eta asko inork ahozkoan trebatu barik hasten dira unibertsitatean irakasten, baita irakaskuntzako gainerako mailatan ere. Ondorioz, ageriko gabeziak dituztela abiatzen dira euren zeregin profesionalean, hala mintzamenean nola ozen irakurtzean.

Guk iradokizun argiak igorri dizkiegu EHUko arduradunei idatziz; batetik, aurtengo saioetan burutua aztertzeko; bestetik, hurrengo urtean ere egingo balira kurtsook, beste era bateko programazio, batez ere, luzeagoa antola dezagun.

*Juan Luis Goikoetxea Arrieta.*



## 6.- BIBLIOGRAFIA

- ALTONAGA, Kepa. (2010): Ahozko Komunikazioa Ikasgelan. Kritika. Bilbon, Mendebalde Kultura Alkartea.
- ALKORTA, Kaxildo. (2010): Ahozko Komunikazioa Ikasgelan. Kritika. Bilbon, Mendebalde Kultura Alkartea.
- BASTERRETXEA, Jose Inazio. (1997): Komunikazioaren eta informazioaren oinarriak. Udako Euskal Unibertsitatea. Bilbo.
- DARDANO, M; TRIFONE, P. (2006): Grammatica italiana. Zanichelli. Bologna.
- DOMINGUEZ, M. N. (2007): Conectores discursivos en textos argumentativos breves. Arco/Libros S. L. Madrid.
- EUSKALTZAINDIA. (2008): Testu-antolatzaileak Erabilera estrategikoa. Corpus Batzordea. Bilbo.
- GAMINDE, Iñaki. (2010): Ahozko Komunikazioa Ikasgelan. Kritika. Bilbon, Mendebalde Kultura Alkartea.
- GOIKOETXEA, Juan Luis. (2010): Ahozko Komunikazioa Ikasgelan. Kritika. Bilbon, Mendebalde Kultura Alkartea.
- GOIKOETXEA, J. I.; ESNAL, P.; ELOSEGI, L.; URRUTIA, A. (2008): Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa. Liburuaren aurkezpena. Separata. Euskaltzaindia. Jagon Saila. Bilbo.
- GOIKOETXEA, Udane. (2010): Ahozko Komunikazioa Ikasgelan. Kritika. Bilbon, Mendebalde Kultura Alkartea.
- GOTTESMAN, D.; BUZZ, M. (2008): Técnicas para hablar en público. Ediciones Urano. Barcelona.
- HABE. (1989): Euskara-irakaslearen liburua. Gasteiz.
- ITURBE, Jacinto. (2010): Ahozko Komunikazioa Ikasgelan. Kritika. Bilbon, Mendebalde Kultura Alkartea.
- VALLEJO-NÁGERA J. A. (2006): Aprender a hablar en público, Planeta, Barcelona.